

Temporada 21/22 Denboraldia

# Orquesta Sinfónica de Navarra Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Urriak 7 Octubre 19:30

## Rompiendo barreras Hesiak hausten



**PILAR CONSTANCIO**  
Flauta/Txirula



**ALONDRA DE LA PARRA**  
Directora/Zuzendaria

 **FUNDACIÓN  
BALUARTE  
FUNDAZIOA**



**ORQUESTA  
SINFÓNICA  
DE NAVARRA**

**NAFARROAKO  
ORKESTRA  
SINFONIKOA**



Abono **1** Abonua

**7 octubre**  
**Auditorio Baluarte,**  
**Pamplona**

Urriak 7  
Baluarte Auditorioa,  
Iruña

**19.30 horas/ean**





# Rompiendo barreras

## Hesiak hausten

Primera parte / Lehen zatia

*El canto de Atenea*

**Teresa Catalán**  
(1951)

Obra encargo de Fundación Baluarte. Estreno absoluto  
Baluarte Fundazioak enkargatua. Erabateko estreinaldia

Segunda parte / Bigarren zatia

*Sinfonía n. 5 en re menor, op. 47*

**Dmitry Shostakovich**  
(1906 – 1975)

**PILAR CONSTANCIO**, Flauta/Txirula

**ALONDRA DE LA PARRA**, Directora/Zuzendaria

⌚ Primera parte: **25 min** | Pausa | Segunda parte: **45 min**  
Lehen zatia: **25 min** | Pausaldia | Bigarren zatia: **45 min**



**A** migas y amigos de la Fundación Baluarte y de la Orquesta Sinfónica de Navarra. Una temporada más, nos encontramos para seguir disfrutando de una gran programación y para celebrar que, poco a poco, vamos recuperando la ansiada normalidad. En todo caso, y a pesar de esta larga pandemia, la cultura ha estado siempre presente en nuestras vidas y se ha reivindicado por su calidad, pero también por su capacidad de adaptación a los tiempos, a los formatos, a los protocolos, a las normativas. Siempre pensando en ese público tan diverso como la oferta que tenemos por delante, y tan agradecido como quien escribe. Porque hay que dar las gracias, una vez más, a quienes habéis hecho posible que actividades esenciales, necesarias, nucleares para nuestra sociedad, siguieran adelante a pesar de las dificultades.

Este curso vamos a celebrar varios aniversarios de históricos compositores, se refuerza el Programa Educativo y Social de la Fundación y habrá, cómo no, conciertos en el marco del Año Xacobeo, en cuatro

localidades del Camino de Santiago. Se amplía la programación de presencia de la OSN en el territorio con la Temporada de abono en Tafalla, que se suma a las de Pamplona y Tudela. Y además, tendremos una programación repleta de música de compositores navarros.

Son solo algunos hitos de tantos que podremos vivir y compartir. Y que sin duda nos reafirman en nuestra apuesta desde el Gobierno de Navarra por la cultura, por el talento, y entendiendo la cultura como elemento de cohesión no solo social sino también territorial. De ahí que estemos haciendo un importante esfuerzo por acercarla a todas las zonas de Navarra. Porque la cultura tiene que ser accesible a toda la ciudadanía y estamos comprometidos con ese objetivo. Calidad, oferta diversa y plural y proximidad.

Os deseo una feliz temporada y de nuevo gracias por estar ahí. Eskerrik asko.

## María Chivite Navascués

Presidenta del Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuako Lehendakaria



**B**aluarteko Fundazioko eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoko adiskideok. Beste behin ere, hementxe gaude elkarrekin, denboraldi berri honetan, programazio bikaina gozaten jarraitzeko eta, poliki-poliki, normalizazio irrikatua berreskuratzen ari garela ospatzeko. Nolanahi ere, eta pandemia luze hau gorabehera, kulturak beti izan du lekua gure bizitzetan, bere kalitatea aldarrikatu du, bai eta garai, formatu, protokolo eta araudietara egokitzeko duen gaitasuna ere. Beti buruan harturik publiko hain askotariko hori, aurrean dugun eskaintza bezain askotarikoa, eta lerro hauek idatzi dituen bezain esker onekoa. Izan ere, eskerrak eman behar zaizkizue, beste behin ere, zailtasunak zailtasun, gure gizartearentzat hain funtsezkoak, beharrezkoak eta muin-muinekoak diren jarduerak aitzina jarraitzea ahalbidetu duzuenoi.

Denboraldi honetan, hainbat konpositore historikoren urtemugak ospatuko ditugu, Fundazioaren Hezkuntza eta Gizarte Programa sendotu da eta, nola ez, kontzertuak egingen dira Urte

Xakobeoaren baitan, Donejakue Bideko lau herritan. NOSen presentzia lurraldean zabaltzeko programazioa indartu da, Tafallan abonuko denboraldia antolatu baita, Iruñekoarekin eta Tuterakoarekin batera. Eta gainera, nafar konpositoreen musikaz beteriko programazioa izanen dugu.

Horra hor mugarri gutxi batzuk aipaturik, bizi eta partekatu ahal izanen ditugun guztien artean. Mugarriok ederki erakusten dute Nafarroako Gobernuan kulturaren alde, talentuaren alde, darabilgun apustua, betiere kultura, gizartea elkarganatzeko tresna izateaz gain, lurraldea elkarganatzeko elementua dela ulertuta. Horregatik ari gara ahalegin garrantzitsua egiten, kultura Nafarroako inguru guztietara ekartzeko. Kulturak herritar ororen eskura egon behar baitu, eta helburu horrekin konprometitua gaude. Kalitatea, eskaintza askotarikoa, anitza eta hurbilekoa.

Denboraldi zoriontsua opa dizuet eta berriz ere eskerrik asko hor egoteagatik. Mila esker.

# Notas al programa



La conquista de la libertad creativa a través de los difíciles caminos de las vanguardias está destinada a las personalidades artísticas más valientes. La lucha nunca resulta fácil y encontrar un lenguaje propio que avance en el camino de la innovación sin dejar de mirar a la tradición y sin perder nunca de vista el valor de lo “esencial”, puede ser como escalar un siete mil. Patxi Larrañaga, compañero de Teresa Catalán en aquel Iruñeako Taldea formado en los ochenta y que seguía las importantes enseñanzas de Agustín González-Acilu, formula la pregunta de si “¿es reaccionario por definición cualquier intento de superar la estética de las vanguardias históricas?”, cuestión compleja a la que añade que se trata de “una paradoja que planea sobre la composición actual”. Nuestra querida Teresa Catalán es la artista luchadora que se ha enfrentado al reto de asumir, como escribe Larrañaga, “el legado de las vanguardias” y conseguir mantener un equilibrio “tenso y difícil, (...) entre la continuidad vanguardista y su revisión crítica”.

Desde sus orígenes humildes, **Teresa Catalán** ha avanzado con determinación en su empeño de expresar a través de la música todo un universo de ideas en un idioma personal que Larrañaga resume como una “sensibilidad que revisa el pasado y separa lo esencial de lo accesorio” citando al arquitecto Paolo Portoghesi [*Primitivos de la nueva sensibilidad*]. Cuatro meses después de que recibiera en Olite el Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2021, Teresa Catalán estrena esta tarde y con nuestra Orquesta, una de sus últimas

partituras, un concierto para flauta (en Sol y en Do) y orquesta que ha titulado *El canto de Atenea*. La obra, que la compositora navarra dedica con gran cariño a su madre, como “un homenaje a su recuerdo”, es un encargo de la Fundación Baluarte.

Escrita en dos partes, el concierto es una metáfora sobre el mito de Atenea sin ninguna intención descriptiva. “No trato de ‘contar’ una historia, en absoluto”, explica Catalán, “los mitos me interesan por diferentes razones, pero no trato de describirlos con la música”. En referencia al carácter metafórico de la música, la compositora cita una reflexión de Santiago Kovadloff, con la que está plenamente de acuerdo: “La música es metáfora, es decir, sugerencia de un sentido no literal y que, por lo tanto, no reviste la inequívocidad de lo simbólico, sino que, a la inversa, sumerge la percepción en una profunda y fecunda ambigüedad. De la música –nadie lo ignora– sólo se puede hablar en escorzo, no pretendiendo decir frontalmente lo que ella significa sino dejándonos decir cómo y de qué modo nos significa, nos infunde identidad, sustancia y sentido”.

La compositora explica el mito y los personajes que han inspirado y dado sentido a esta metáfora musical en dos movimientos. La primera parte de la obra lleva el título *De las cien cabezas* y hace referencia a la canción mencionada por Píndaro, que Atenea interpretó en una flauta que ella misma había inventado a partir de los huesos de un ciervo, durante un banquete, imitando con su sonido el lamento de las dos Gorgonas: Esteno y Euriale, cuando



Perseo cortó la cabeza de la tercera de las hermanas, Medusa. Otras variantes del mito cuentan cómo Hera y Afrodita se burlaron de la deformación del rostro de Atenea cuando tocaba la flauta, y cómo la diosa, tras mirarse el rostro en un río y comprobar que el instrumento la afeaba, arrojó la flauta lejos y prometió terribles castigos a quien la encontrase.


La segunda parte se titula *Euriale* [lo que en griego antiguo significa “caracterizada por buenas acciones”], referida a una de las tres Gorgonas, la que representa la virtud de la universalidad. Euriale, que era inmortal como su hermana Esteno, tenía forma de mujer pero de su cabeza nacían serpientes venenosas vivas en lugar de cabellos. Poseía garras de bronce, una boca enorme con colmillos de marfil, alas de oro y cola de serpiente. Su sangre poseía virtudes curativas si se extraía del lado derecho, pero de lo contrario, se convertía en un veneno letal e instantáneo. Pese a lo terrible de estas circunstancias, Euriale era la única Gorgona que mostraba sentimientos maternos: lloró desconsoladamente cuando Perseo decapitó a Medusa, y era madre de Destino, creadora del mundo del Caos. Como diosa, protegía varios santuarios y oráculos en las montañas, como el Oráculo de Delfos, por ejemplo, e inspiró a las pitias o pitonisas encantadoras de serpientes.

Cuando al principio del verano recibí Teresa Catalán el Premio Príncipe de Viana de la Cultura, insistió en la necesidad de mirar la Música como “un bien social” y evitar que la Cultura sea vista como un “instrumento de poder”. A lo largo de la Historia ha sido constante el conflicto generado entre la libertad del proceso creativo y el control que en mayor o menor

medida han ejercido las autoridades políticas o religiosas en la obra de los artistas. Por desgracia, esto continúa sucediendo en algunas partes del mundo como represión de la libertad de expresión o discriminación por sexo o religión. Queda mucho por luchar, muchas barreras por derribar, y a través de la Música, como dice Alondra de la Parra y demuestra día a día nuestra querida Teresa Catalán, podremos “tocar el alma y establecer un sentimiento de comunidad”.

Sin embargo, la censura ha sido la sombra que ha acompañado al artista durante siglos y su superación ha destapado el despegue y triunfo final de los más geniales aunque estos sucedieran después de la desaparición de aquellos valientes creadores que pagaron un alto precio por expresarse libremente. Adaptarse a las directrices marcadas desde el poder ha resultado ser un proceso costoso, en todos los aspectos, para los mejores. Desde luego, lo debió ser más para quienes miraban hacia el mundo artístico que disfrutaba de la mayor libertad jamás experimentada por un artista desde el otro lado de una frontera. Intentemos imaginar cómo vivieron los grandes compositores de la era soviética su adaptación a la tiranía de la llamada “consigna social” que Vinay define como la total subordinación de la libertad del artista a la política cultural del partido, mientras el mundo occidental exploraba infinitos lenguajes sonoros buceando en el océano de la libertad de aquellas vanguardias.

Desconcertado por la amenaza de la marginación cultural, **Dmitri Shostakovich** (1906-1975) escuchó las advertencias que amenazaban su carrera y su camino hacia la libertad creativa cuando se publicó en



*Pravda*, el 28 de enero de 1936, el artículo titulado *Confusión en vez de música*, en el que se criticaba ferozmente la ópera *Lady Macbeth del distrito de Mzensk*. Miembro reconocido de la Unión de Compositores Soviéticos, Shostakovich vivió la terrible contradicción de luchar por hacer aflorar su enorme caudal creativo sin desobedecer las normas estéticas establecidas por el régimen soviético. Había que huir de la “*decadencia de occidente*” y convivir con la intransigente censura, así que Shostakovich se tuvo que esforzar por reconquistar a las autoridades, siempre con cautela, y cuando el 21 de noviembre de 1937 estrenó su *Sinfonía nº 5* en Leningrado, escribió: “*me he esforzado para que el auditor soviético sienta en mi música la acción de un esfuerzo de dirección de la inteligibilidad y de la sencillez*”. Calificó su nueva sinfonía como la “*respuesta de un compositor a unas justas críticas*”.

En la *Quinta sinfonía*, Shostakovich regresó a la sencillez de las estructuras esenciales y a la simplificación del lenguaje musical con una agrupación sinfónica más reducida en comparación con la sinfonía anterior. El sentimiento dramático que se respira a lo largo de toda la partitura toma la mano a una línea melódica que recorre estados emocionales muy diversos pero conectados en todas las secciones de la sinfonía. La tensión dramática comienza en el *Moderato* inicial con un tema de gran fuerza, de ritmos punteados, que genera momentos de angustia o misterio y que conduce a un segundo tema más lírico y sereno. El contrapunto siempre está presente, en compañía de las brillantes intervenciones de la sección de viento metal o de la profundidad del piano, generando un movimiento de gran personalidad en

todos los aspectos, especialmente en la energía rítmica de las percusiones.

Un poco de humor es bien recibido tras la intensidad dramática del primer movimiento. Así se desarrolla el *Allegretto*, un scherzo de atmósfera popular, incluso festiva, no carente de ironía, que apunta, de alguna manera, a la influencia de la tradición mahleriana. Vinay describió el movimiento como “*descaradamente optimista y oficialista*”. En el *Largo* que se escucha a continuación, es protagonista la meditación de unas cuerdas sin acompañamiento de instrumentos de viento metal y con intervención melódica de flauta y oboe de gran intensidad. La obra culmina con un *Allegretto non troppo* que presenta momentos de inspiración popular y un brillante final de carácter triunfal.

Robert P. Morgan describe a la *Quinta sinfonía* de Shostakovich como “*una obra de clara convicción artística, poder expresivo y perfección técnica, a pesar de su relativa sencillez*”. Desde su estreno fue recibida con entusiasmo y en la actualidad continúa siendo una de las más populares y queridas por el público del catálogo sinfónico del compositor ruso. El propio Shostakovich la describió como una “*sinfonía lírico-heroica*” cuya idea principal “*es la experiencia emocional y el optimismo triunfante del hombre. Quería mostrar cómo, venciendo una serie de conflictos trágicos debidos a la lucha intensa que agita violentamente el alma humana, nace el optimismo como una concepción del mundo. Toda obra de arte contiene elementos autobiográficos y el tema de mi sinfonía es el de un hombre que se está haciendo*”.





# Programari buruzko oharrak



**A**skatasun sortzailea abangoardia-bide neketsuen bitartez konkistatzeko aukera artista ospetsu ausartenarentzat dago gordea. Borroka ez da sekulan erraza izaten, eta zazpi milako bat eskalatzea bezalakoa izan daiteke berrikuntzaren bidean aurrera joko duen berezko hizkuntza bat aurkitzea, betiere tradizioari begiratzeari utzi gabe eta “funtsezkoaren” balioa sekulan bistatik galdu gabe. Patxi Larrañaga Teresa Catalánen kidea izan zen laurogeiko hamarkadan osatutako Iruñeko Taldea ekimenean, hots, Agustín González-Aciluren irakaspen garrantzitsuei jarraitzen zien talde hartan. Bada, Larrañagak galdera hau egin du: ... *Erreakzionarioa al da definizioz abangoardia historikoen estetika gainditzeko saiakera oro?*, kontu konplexua da, eta hauxe erantsi dio... *horreragunago konposizioaren inguruan igartzen den paradoxa bat*. Gure Teresa Catalán maitea da artista borrokalaria hori, eta hark berak egin dio aurre, Larrañagak idatzi bezala, ...*abangoardien ondarea... onartzeko erronkari, eta lortu du lortu duenez, oreka ...tenkatu eta zaila mantentzea (...)* jarraitasun abangoardistaren eta haren berrikuspen kritikoaeren artean.

Bere jatorri apalenetatik abiatuak, **Teresa Catalánek** irmo egin du aitzina ideien unibertso oso bat musikaren bidez adierazteko ahaleginean, hizkuntza pertsonal bat onduta. Larrañagak honela definitu du: “*iragana berrikusten duen sentiberatasuna, garrantzitsua dena bigarren mailako kontuetatik bereizten dituen*”, Paolo Portoghesiren arkitektoaren hitzak ekarrita [*Los primitivos de una*

*nueva sensibilidad*]. Erriberrin, 2021eko Kulturaren Vianako Printzea Saria jaso eta lau hilabetera, Teresa Catalánek bere azken partituretako bat estreinatuko du gaur arratsaldean gure Orkestrarekin, hots, txirularako (sol eta do) eta orkestrarako kontzertu bat, *El canto de Atenea* izena eman diona, nafar konpositoreak bere amari maitasun handiz eskainia (*omenaldia haren oroitzapenetan*), Baluarte Fundazioak enkargatua.

Bi zatitan idatzia, Atenearen mitoari buruzko metafora bat da kontzertua, inolako deskribapen asmorik gabea. ...*Ez naiz saiatu istorio bat ‘kontatzen’, inola ere ez, azaldu du Catalánek; ...hainbat arrazoi direla medio interesatzen zaizkit mitoak, baina ez naiz saiatzen deskribapenak egiten musikaren bidez*. Musikaren metafora-izarrerari dagokionez, konpositoreak Santiago Kovadloferen gogoeta bat ekarri du hizpidera, zeinarekin erabat ados baitago: ... *Musika metafora da, hau da, literala ez den zentzu baten iradokizuna, eta, horrenbestez, ez du sinbolikoaren argitasuna, baizik eta, alderantziz, ambiguitasun sakon eta emankorrean murgiltzen baitu pertzepzioa*. Jende orok badaki eskortzoan bakarrik hitz egin daitekeela musikaz, musikak esan nahi duena aurrez aurre esan nahi izan gabe, baizik eta guri esaten utzita nola eta zer modutan duen guretzat esanahia, eta zein diren ematen dizkigun nortasuna, funtsa eta zentzua.

Konpositoreak oinarritzat hartu ditu bi mugimenduko metafora musikal hori inspiratu duten mitoa eta pertsonaiak, aldi berean zentzua eman diotenak. Lanaren

lehen zatiak *De las cien cabezas* du izenburu eta Pindarok aipaturiko abestia ekartzen du hizpidera, hots, Ateneak berak orein-hezurrekin asmatutako txirularekin oturuntza batean interpretatutako huraxe bera, bi Gorgonen auhen hura soinuarekin imitatuta, hau da, Estenoren eta Eurialeren auhena, Pertseok hirugarren ahizparen, Medusaren, lepoa moztu zuenean. Mitoaren beste aldaera batzuek kontatzen dute Hera eta Afrodita Atenearen aurpegiaren deformazioaz trufatu zirela jainkosa txirula jotzen ari zenean, eta jainkosak, behin bere aurpegia ibai batean islatua ikusitakoan, eta instrumentuak aurpegia itsusten zuela ohartzean, txirula urrunera bota eta zigor ikaragarriak agindu zituela huraxe aurkitzen zuenarentzat.

Bigarren zatiaren izenburua *Euriale* da [greko zaharrean *ekintza onek ezaugarritua* esan nahi du]. Hiru Gorgonetariko bati buruzkoa da, unibertsaltasunaren bertutea irudikatzen duenari buruzkoa, hain zuzen. *Euriale* hilezkorra zen, ahizpa Esteno bezala; emakume-itxura zuen baina haren burutik suge pozoitsu biziak jaiotzen ziren ileen orde. Brontzezko atzaparrak zituen, bolizko letaginez osaturiko aho izugarri bat, urrezko hegoak eta suge-buztana. Haren odola sendagarria zen, eskuinaldetik ateratzen bazen; bestela, pozoilgarri bihurtzen zen berehala. Inguruabar ikaragarri haiek gorabehera, Gorgonen artean, Eurialek bakarrik erakusten zituen ama-sentimenduak: atsekabe handiz negar egin zuen, Pertseok Medusari lepoa moztu zionean, eta Destinoren ama zen, hau da, Kaosaren munduaren sortzailearen ama. Hainbat santutegi eta orakulu zituen babespean mendietan, hala nola Delfosko Orakulua, eta suge-limurtzaileen pitonisak edo pitiaik inspiratu zituen.

Uda hasieran, Teresa Catalánek Kulturaren Vianako Printzearen Saria jaso zuenean, Musika ondasun sozial gisa hartu beharra azpimarratu zuen, eta eragotzi, Kultura boterearen lanabes gisa ikustea. Historian barna, gatazka etengabea izan da sormen-prozesuaren askatasunaren eta agintari politikoek edo erlijiosoek artisten obran hein handi edo txikiagoan eragin duten kontrolaren artean. Zoritzarrez, hori oraindik ere gertatzen da munduko leku batzuetan, hala nola adierazpen-askatasunaren zapalketa edo sexuan edo erlijioan oinarrituz eragiten den bazterkeria. Bada zer borrokatu handia, badira hesi asko eraisteko, eta Alondra de la Parrak esaten duen bezala eta gure Teresa Catalán maiteak egunero darakutsan gisan, Musikaren bitartez ukitzen ahaliko dugu arima eta komunitate-sentimendu bat ezarri.

Alabaina, zentsura izan da artistak mende mende bidelagun izan duen itzala, eta ataka hori gainditzeak jenialenen ospea eta azken garaipena utzi ditu agerian, ospea eta garaipena sortzaile ausart haiek desagertu ondoren etorrita ere, ahaztu gabe prezio handia ordaindu zutela askatasunez adierazteagatik. Botereak ezarritako jarraibideetara egokitzea prozesu neketsua izan da onenentzat, alde guztietatik begira. Jakina, are neketsuagoa izan zen mugaz bestaldetik mundu artistikorantz begiratzen zutenentzat, mundu horrek gozatu baitzuen artistek sekulan bizi izandako askatasunik handiena. Saia gaitezen irudikatzen nola bizi izan zuten aro sobietarreko konpositore handiek kontsigna soziala izeneko tiraniarekiko egokitzapena. Vinayk honela definitu du hori: artistaren askatasunaren erabateko mendekotasuna alderdiaren kultur politikara; bitartean, mendebaldeko munduak hamaika soinu-hizkuntza miatzen zituen, abangoardien askatasunaren itsasoan murgilduta.


Kultur bazterketaren mehatxuak harrituta, **Dmitri Shostakovitxek** (1906-1975) entzun egin zituen bere karrera eta askatasun sortzailerantzko bidea mehatxatzen zituzten ohartarazpenak, noiz eta, 1936ko urtarrilaren 28an *Pravdan Nahasmendua*, musika izan beharrean izenburuko artikulua argitaratu zenean. Hartan kritika basatia egin zitzaion Mzensk barrutiko *Lady Macbeth* operari. Konpositore Sobietarren Batasuneko kide ospetsua, Shostakovitxek kontraesan izugarria bizi izan zuen, hots, bere sormen emari ikaragarria azaleratzearen aldeko borroka, baina erregimen sobietarrak ezarritako arau estatikoak desobeditu gabe. Mendebaldearen dekadentziatik ihes egin beharra zegoen eta zentsura latzaren uztarpean bizi. Shostakovitxek, beraz, ahalegina egin behar izan zuen agintariak berriz bereganatzeko, kontuz beti, eta 1937ko azaroaren 21ean bere 5. Sinfonia Leningraden estreinatu zuenean, hauxe idatzi zuen: *...ahalegindu naiz auditore sobietarrak senti dezan ulergarritasuna eta soiltasuna zuzentzeko saiakera egin dudala nire musikan. Eta honela kalifikatu zuen bere sinfonia berria: konpositore batek kritika zuzen batzuei emandako erantzuna.*

Bosgarren sinfonian, Shostakovitx funtsezko egituren soiltasunera itzuli zen, bai eta hizkuntza musikalaren sinplifikazio-ra ere, talde sinfoniko txikiago batekin, aurreko sinfoniaren aldean. Partitura osoari darion sentimendu dramatikoak ildo melodiko bati ematen dio eskua, eta ildo horrek askotariko egoera emozionalak zeharkatzen ditu baina sinfoniaren atal guztietan loturik daudenak. Matesio dramatikoak hasierako Moderatoan hasten da indar handiko gai batekin; erritmo punteatuak ditu, larriminezko zein misteriozko uneak sortuta, eta bigarren gai lirikoago eta bareago batera garamatza. Beti ageri da kontrapuntua, metalezko haize atalaren esku-hartze sutsuenekin batera edo pianoaren sakontasunak lagundua.

Horrek nortasun handiko mugimendua eragiten du aspektu guztietan; bereziki, perkusioen erritmoen indarrean.

Ongietorria da umore pixka bat, lehen mugimenduaren indar dramatikoaren ondotik. Horrela garatzen da *Allegretto*, hots, giro herritarreko scherzo bat, baita jai girokoa ere, ironiatik ere baduena, eta nola edo hala Mahlerren tradizioaren eragina erakusten duena. Vinayk honela deskribatu zuen mugimendua: *lotsagabeki baikorra eta ofizialista*. Ondoren entzuten den Largoan, hari batzuen meditazioa da ardatz, metalezko haize instrumentuen laguntzarik gabe, eta txirularen nahiz oboearen indar handiko esku-hartze melodikoarekin. Lana *Allegretto non troppo* baten bidez bururatzen da, herri inspirazioko uneak dituen, bai eta garaipen izaerako bukaera sutsua ere.

Robert P. Morganek honela deskribatu du Shostakovitxen Bosgarren sinfonia: *... konbikzio artistiko argia duen lana, bai eta adierazpen-ahalmena eta perfekzio tekniko ere, nahiko sinplea izan arren*. Estreinatu zenetik, jendeak gogo biziz hartu zuen, eta, gaur egun oraindik ere da publikoarentzat musikagile errusiarraren sinfonia lanik ezagun eta maitatuenetako bat. Shostakovitxek berak sinfonia liriko-heroikoa bezala deskribatu zuen, ideia nagusia honela zehaztuta: *gizakiaren esperientzia emozionala eta baikortasun garailea*. Erakutsi nahi nuen munduaren ikuskera gisa sortzen dela baikortasuna, nola eta giza arima bortizki astintzen duen borroka biziaren ondoriozko gatazka tragiko batzuk garaituz. Artelan orok elementu autobiografikoak ditu, eta egiten ari den gizon bat da nire sinfoniaren gaia.



# Alondra de la Parra

Directora/Zuzendaria



**A**londra de la Parra ha ganado una gran atención por sus fascinantes y vibrantes actuaciones y su compromiso con los compositores latinoamericanos. Ha dirigido más de 100 de las orquestas más prestigiosas del mundo, incluyendo la Orchestre de Paris, London Philharmonic Orchestra, Tonhalle-Orchester Zürich, Bamberg Symphony, Swedish Radio Symphony Orchestra, São Paulo Symphony Orchestra, Berlin Radio Symphony Orchestra and Orchestra dell'Accademia Nazionale di Santa Cecilia.

Desde enero de 2017 hasta noviembre de 2019, fue directora musical de la Orquesta Sinfónica de Queensland, convirtiéndola en la primera directora musical de una orquesta australiana. Es embajadora cultural oficial de México, donde vio ventas de nivel platino de su primer álbum «Mi Alma Mexicana» y, en marzo de 2017, fue nombrada embajadora internacional de la marca Mercedes-Benz. Desde julio de 2017, Deutsche Welle transmite «Musica Maestra», un nuevo formato clásico que presenta a Alondra de la Parra como protagonista y reportera en una serie de varios videos web y programas de televisión.

En la temporada 2019/20, celebra su debut con la Vienna Radio Symphony Orchestra en Musikverein, Orchestre Philharmonique du Luxembourg con Rolando Villazón, Frankfurt Radio Symphony y Staatskapelle Dresden.


Dirigió Romeo y Julieta de Tchaikovsky con el Ballet de Queensland en Brisbane, un concierto en Komische Oper Berlin con el violonchelista Jan Vogler y regresa a la Deutsche Kammerphilharmonie Bremen, con la que ha trabajado estrechamente durante varios años.

Alondra de la Parra también regresó a Tonhalle-Orchester Zürich, a Staatsoper Berlin y a la Royal Opera House en junio de 2020.

Los compromisos de las últimas temporadas incluyen su debut con la NHK Symphony, su debut en Beethovenfest Bonn, su célebre regreso a Orchestre de París, apariciones en la Orquesta del Festival Verbier, BBC Philharmonic, BBC National Orchestra of Wales y una presentación orquestal en vivo de la película West Side Story en el Auditorio Nacional de México, así como el estreno mundial de la nueva producción THAMOS en Mozartwoche Salzburg, junto con Camerata Salzburg y el colectivo teatral La Fura dels Baus, así como su debut en el Festival de Pâques en Aix-en-Provence.

# Pilar Constancio

Flauta/Txirula





**N**ace en Manises (Valencia) en el seno de una familia de músicos, siendo su padre el que le inculca su pasión por la música.

Inicia sus estudios de flauta con el Profesor Solista de la Banda Municipal de Valencia Joaquín Constanco, continuándolos más tarde en el Conservatorio Superior de Música de Valencia con Jesús Campos y M<sup>a</sup> Dolores Tomás.

Obtiene el Título Superior de Flauta y el Premio Extraordinario “Fin de Carrera” y empieza a estudiar regularmente con Mdme. Ribera hasta que se traslada a París, donde estudia en el Conservatorio “Héctor Berlioz” y en el “Conservatorio Nacional de Región de Versalles” con Raymond Guiot y Christel Rayneau respectivamente, al igual que amplía sus estudios con A. Nicolet, P. L. Graf, A. Marion y T. Wye...

Allí obtiene el “1º Prix Ville de París à l’unanimité” y el “1º Prix Medaille d’Or à l’unanimité” por el C.N.R. de Versailles “. Es también, Primer Premio en el “ Concours Musical Regional d’Île de France “.

Ha colaborado con la Orquesta Reina Sofía de Madrid, Orquesta Nacional de España, Orquesta de Valencia y la Orquesta de RTVE.

Actualmente y desde 1986 , es Flauta Solista de la Orquesta Sinfónica de Madrid, Orquesta titular del Teatro Real de Madrid, donde ha trabajado con grandes directores de la talla de Kurt Sanderling, Peter Maag , Semyon Byschov, Leopold Hager, Vladimir Jurowsky , Pinchas Steinberg, , Nicola Luisotti, Alberto Zedda, L.A. García Navarro y Riccardo Muti...

Como concertista, ha desarrollado una intensa actividad, por ejemplo con los Conciertos para flauta de W. M. Mozart como también con la integral de Cuartetos con flauta en el Teatro Real. En 2014, y a propósito del 190 aniversario del compositor Carl Reinecke en el Auditorio Nacional, interpretó su famoso Concierto para flauta. Ha interpretado la integral para flauta de André Jolivet. Mantiene un gran compromiso con la música contemporánea y de nueva creación desde Betsy Jólás, Oliver Messiaen, Carol Beffa y en España con Jacobo Durán-Loriga, Manuel Busto, Jesús Torres, Elena Mendoza, Raquel García-Tomás....

Entre sus futuros proyectos está el estreno de El Canto de Atenea Concierto para flauta en Sol/flauta de la compositora Teresa Catalá junto a la Orquesta Sinfónica de Navarra.

# Profesores de orquesta

## Orkestrako irakasleak

### VIOLINES/BIOLINAK

**Yorrick Troman**  
CONCERTINO  
**Anna Siwek**  
AYUDA DE CONCERTINO  
Daniel Menéndez\*\*  
Malen Aranzabal  
Edurne Ciriaco  
Nathalie Gaillard  
Catalina García-Mina  
Inés de Madrazo  
David Pérez  
Enrico Ragazzo  
Nikola Takov  
Aratz Uriá  
Maddi Arana  
Eduardo Canto

### VIOLINES II/BIOLINAK

Anna Radomska\*\*  
Maite Ciriaco\*\*  
Grazyna Romanczuk\*  
Fermín Ansó  
David Cabezón  
Lourdes González  
Tibor Molnar  
Angelo Vieni  
David Andreu  
Sergiu Ionescu  
Fernando Pina  
Ana Perona

### VIOLAS/BIOLAK

Jerzy Wojtyśiak\*\*  
Fco. Javier Gómez\*  
Iustina Bumbu  
Robert Pajewski  
José Ramón Rodríguez  
Irantzu Sarriguren  
Malgorzata Tkaczyk  
Lucía Mullor  
Victor Muñoz  
Sandra López  
Nuria González

### VIOLONCHELOS/ BIOLONTXELOAK

David Johnstone\*\*  
Tomasz Przylecki\*  
Carlos Frutuoso  
Aritz Gómez  
Dorota Pukownik  
Lara Vidal  
Andrea Fernández  
Alexandre Llano  
Leire Antoñanzas

### CONTRABAJOS/ KONTRABAXUAK

Fco. Javier Fernández\*\*  
Piotr Piotrowski\*\*  
Gian Luca Mangiarotti  
Daniel Morán  
Raquel Miguez  
Ricardo de Lucas

### FLAUTAS/TXIRULAK

Xavier Relats\*\*  
Ricardo González\*  
Ester Esteban

### OBOES/OBOEAK

Juan Manuel Crespo\*\*  
Pilar Fontalba\*\*  
Javier Lecumberri

### CLARINETES/ KLARINETEAK

Fco. Javier Inglés\*\*  
Elisa López\*\*  
Daniel González  
Andrés Pueyo

### FAGOTES/FAGOTAK

José Lozano\*\*  
Ferrán Tamarit\*\*  
Rubén Ferreira

### TROMPAS/TRONPAK

Julián Cano\*\*  
Daniel Mazarrota\*\*  
Aritz García de Albéniz  
Marc Moragues  
Anais Romero

### TROMPETAS/TRONPETAK

Carlos Gomis\*\*  
César Asensi  
David Lanz

### TROMBONES/ TRONBOIAK

Santiago Blanco\*\*  
Mikel Arkauz\*  
David Manuel Rodríguez  
Óscar Vázquez

### TUBA/TINBALAK

Alfonso Viñas

### TIMBALES/TINBALAK

Javier Odriozola\*\*

### PERCUSIÓN /PERKUSIO

Santi Pizana  
Javier Pelegrín  
Jaime Aristrain  
Jesús Mari Garmendia

### ARPA /PERKUSIO

Alicia Griffiths

### PIANO-CELESTA/ PIANO-ZELESTA

Belén Sierra

\*\* Solista/Bakarlaría  
\* Ayuda Solista/ Bakarlaría laguntzailea



# Dónde estamos





## Non gaude



### LOCALIZACIÓN Y ACCESOS / KOKALEKUA ETA SARBIDEAK



Entrada Ciudadela / Zitudelako sarrera

-  OrquestaSinfonicaDeNavarra
-  @orquestanavarra
-  @orquestasinfonicadenavarra
-  youtube.com/OrquestaSinfonicadeNavarra
- [www.orquestadenavarra.es](http://www.orquestadenavarra.es)
- [info@orquestadenavarra.es](mailto:info@orquestadenavarra.es)

# Baluartecuida Baluartek zaintzen zaitu

## NORMAS COVID / COVID ARAUAK

### COMPRA DE ENTRADAS / SARREREN SALMENTA

Al realizar la compra de las entradas, en taquilla o por internet, se le solicitará su identificación y la de sus acompañantes.

Una vez adquiridas las entradas tome nota de la fila y la butaca asignadas para comprobar la puerta de acceso a Baluarte.

Sarrerak leihatilan edo internet bidez erostean, identifikazioa eskatuko zaizu, bai eta zure lagunena ere.

Behin sarrerak erositakoan, gogoratu zer ilara eta besaulki egokitu zaizkizun, Baluartera sartzeko atea zein den jakiteko.

### ACCESO A SALA PRINCIPAL / ARETO NAGUSIRAKO SARBIDEA

Para minimizar colas y esperas, el acceso se realiza por tres puntos diferentes, dependiendo de la fila y el número de la butaca:

Ilarak eta itxaronaldiak ahalik eta gehien gutxitze aldera, iru sarbide izanen dira barnera sartzeko, ilararen eta besaulki-zenbakiaren arabera.

FILAS Y PUERTAS DE  
ACCESO/ ILARAK ETA  
SARBIDEETAKO ATEAK

#### PUERTA 1. ATEA

**Filas 4-15 Impares**  
Plaza Baluarte

**Ilarak: 4-15 Bakoitiak**  
Baluarteko plaza

#### PUERTA 2. ATEA

**16-28 Pares-Impares**  
Plaza Baluarte

**16-28 Bikoitiak-Bakoitiak**  
Baluarteko plaza

#### PUERTA 3. ATEA

**Filas 4-15 Pares**  
Calle General Chinchilla

**Palcos / Filas 1-14  
Pares-Impares**  
Plaza Baluarte

**Ilarak: 4-15. Bikoitiak.**  
Chinchilla Jeneralaren  
kalea

**Palkoak / Ilarak: 1-14  
Bikoitiak-Bakoitiak**  
Baluarteko plaza

### ACCESO A SALA DE CÁMARA / GANBERA ARETORAKO SARBIDEA

#### PUERTA 1. ATEA



## **MASCARILLA OBLIGATORIA / MUSUKOA NAHITAEZKOA**

En el interior de Baluarte es obligatorio el uso de la mascarilla.

Siempre que sea posible respetar la distancia de seguridad de 1,5 m.

El aforo se adecuará a la normativa sanitaria vigente.

Hay diferentes puntos de suministro de gel hidroalcohólico distribuidos por todo el edificio.

Musukoa nahitaez erabili behar da Baluarte barnean.

Ahal den guztietan, 1,5 metroko segurtasun tartea gorde behar da.

Edukiera unean uneko osasun araudira egokituko da.

Gel hidroalkoholikoa hainbat tokitan dago eskura, eraikin osoan.

## **PAUSA / PAUSALDIA**

En el caso de que el espectáculo tenga pausa, dependiendo de su localidad, habrá establecidas unas zonas determinadas de aseo y restauración.

Ikuskizunak pausaldia badu, eremu jakin batzuk ezarrita egonen dira komunetarako eta sukaldaritzarako, zure sarreraren arabera, betiere.

## **ASCENSORES / IGOGAILUAK**

El uso de los ascensores se reserva de manera preferente para personas con movilidad reducida o necesidades especiales.

El número de ocupantes por cabina es de 1 persona, salvo que sean miembros de la misma unidad familiar.

No dude en consultar al personal de sala ante cualquier duda que pueda tener.

Igogailua, lehenatasunez, mugikortasun urrituko jendeak edo behar bereziak dituzten pertsonak erabiliko dute.

Pertsona 1ek erabiliko du igogailua kabina bakoitzeko, salbu erabiltzaileak familia-unitate berezko kideak badira.

Zalantzarik baduzu, galdetu aretoko langileei, zure esanetara egonen baitira.

## **ASEOS / KOMUNAK**

Los aseos tienen aforo limitado y restricciones de uso para evitar aglomeraciones.

Se realiza limpieza y desinfección de forma continua.

Komunek edukiera mugatua izanen dute, bai eta erabilera murrizketak ere, jende pilaketarik ez izateko.

Komunak etengabe garbitu eta desinfektatuko dira

## **SALIDA DE LA SALA / IRTEERA ARETOTIK**


Se lleva a cabo de forma escalonada, tanto en la pausa como al finalizar la función.

El personal de sala indicará cuándo y cómo realizar la salida.

Mailaka eginen da, hala pausaldian nola saioa bukatzean.

Aretoko langileek adieraziko dute noiz eta nola irten behar den.





## Orquesta Sinfónica de Navarra Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Calle Sandoval 6.  
31002 Pamplona-Iruña  
T. 948 229 217

-  OrquestaSinfonicaDeNavarra
  -  @orquestanavarra
  -  @orquestasinfonicadenavarra
  -  youtube.com/OrquestaSinfonicadeNavarra
- [www.orquestadenavarra.es](http://www.orquestadenavarra.es)  
[info@orquestadenavarra.es](mailto:info@orquestadenavarra.es)



ORQUESTA  
SINFÓNICA  
DE NAVARRA

NAFARROAKO  
ORKESTRA  
SINFONIKOA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 FUNDACIÓN  
CAJANAVARRA

 FUNDACIÓN "la Caixa"

 AUTOPISTAS  
DE NAVARRA

 El Corte Inglés

 MONDRAGON  
SERIOUSNESS  
AT WORK